

## Xedapen Orokorrak

### LEHENDAKARITZA

#### Zk-1184

2/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak otsailaren 25ko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

OTSAILAREN 25EKO 2/2004 LEGEA, DATU  
PERTSONALETARAKO JABETZA PUBLIKOKO  
FITXATEGIEI ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL  
BULEGOA SORTZEARI BURUZKOA

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Teknikaren aurrerabidea bizkortu egin da azkenaldi honetan. Gaur egun, informatika erabiliz, pertsona fisikoei buruzko hainbat eta hainbat datu trata dezakegu, eta baliteke intimitatea urratzen duen hainbat gauza ezagutzea pertsona horiei buruz. Baliteke teknologiak eskaintzen dizkigun aukerak maltzurkeriaz erabiltzea baten batek, bakoitzaren intimitaterako gorde beharreko esparruen kaltetan, eta ordenamendu juridikoek ezin dute ezikusia egin.

Teknologiaren, batez ere informatikaren, eta pertsonen intimitatearen arteko tentsio horrek legearen esku hartzea eskatzen du, bi ondasun horien artean oreka asegarria lortzeko, biak baitira legez babestea merezi dutenak. Alde batetik, garapen teknologikoari galga emateak ez dio gizarteari onik egiten, teknologiak aukera mugagabeak eskaintzen baititu, gizartearen ongizatea hobetu behar dutenak; baina, beste alde batetik, herritarrek beren intimitate pertsonala babesturik ikusteko eskubidea dute, eta gaur egungo teknologia informatikoak eskaintzen dituen aukerak ez dute intimitate hori nahi baino gehiago murriztu behar. Horretarako, informatika erabiltzeari mugak jarri behar, eta, horrela, herritarrei ohorea eta intimitatea, pertsonala eta etxekoa, eta eskubideen bete-beteko erabilera bermatu. Konstituzioak hala egiteko agintzen dio legegileari, 18.4 artikuluan, eta hark agindu hori jaso egin du Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan.

Herritarren intimitate pertsonala eta etxeko intimitatea babesteko kezka horrek –informatika halakoetan

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-1184

LEY 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

LEY 2/2004, DE 25 DE FEBRERO, DE FICHEROS DE  
DATOS DE CARÁCTER PERSONAL DE  
TITULARIDAD PÚBLICA Y DE CREACIÓN DE LA  
AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS.

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Los avances de la técnica se han acelerado en los últimos tiempos. Actualmente, el uso de la informática permite tratar gran cantidad de datos relativos a las personas físicas, pudiendo llegar a conocer aspectos relacionados con las mismas que suponen una intromisión en su intimidad. Los ordenamientos jurídicos no pueden permanecer insensibles ante la eventualidad de usos perversos de las posibilidades tecnológicas, en detrimento de espacios que deben quedar reservados a la intimidad personal.

Esta tensión entre tecnología, especialmente en el campo de la informática, e intimidad de las personas apela a una actuación legislativa que procure un equilibrio satisfactorio entre dos bienes dignos de protección jurídica. Por un lado, no es bueno para la sociedad poner freno al desarrollo tecnológico, cuyas potencialidades son inmensas y deben contribuir a un mayor bienestar de la comunidad; pero, por otro, los ciudadanos tienen derecho a que se les proteja su intimidad personal, evitando que las posibilidades que ofrece la tecnología informática actual reduzcan aquella más allá de lo deseable. Para ello es preciso limitar el uso de la informática y, de este modo, garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno ejercicio de sus derechos. Es éste un mandato que el artículo 18.4 de la Constitución impone al legislador, y que éste recoge en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

La preocupación por la protección de la intimidad personal y familiar de los ciudadanos, con la consiguien-

noiz-nola erabili mugatu behar horretarako— ez da Estatuko legegilearen kontua soilik. Europar Batasuneko erakundeek ere badakite zer den hori, eta halaxe adierazi izan dute.

Europako Erkidegoa eratzeko itunak gaur egun daukan 286. artikulua Amsterdamgo Itunak ekarria da (1997ko ekainaren 17koa da Amsterdamgo itun hori), eta, hor agindurik dagoenez, datu pertsonalen tratamendua edo zirkulazio askea dela-eta pertsonak babestearren ezer erabakitzen badu Batasunak, Batasuneko erakundeek eta organismoek ere bete behar dituzte erabaki horiek.

Lehenagotik ere, Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak emana zuten 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaraua, datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Eta, printzipio modura, zuzentarau horretan jasota dago datuak tratatzeko sistemak gizon-emakumeon zerbitzura daudela, eta derrigor zaindu behar dituzte la pertsona fisikoen oinarrizko askatasunak eta eskubideak, intimitatea batez ere, eta ekonomia eta gizartea garatzen, elkartrukeak garatzen eta norbanakoon ongizatea areagotzen lagundu behar dutela.

Zuzentarau horren arabera, estatuek datu pertsonalen tratamenduari buruz dituzten legeek eskubide eta askatasun horien errespetua bermatzea dute helburu, bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea bereziki, hala aitorturik baitago Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmeneko 8. artikuluan eta Batasuneko zuzenbideko printzipio orokorretan, eta, legedi horiek bata bestera hurbiltzekotan, kontu horiei babes handia emateko izan behar du.

Zuzentarau horren arabera —eta datu pertsonalak babesteaz ari gara orain—, kontroleko aginte bat sortzea da pertsonak behar duten babesaren funtsezko osagai bat. Batasuneko estatu bakoitzean aritu beharko du aginte horrek, inongo loturarik gabe, eta bere lana egiteko behar dituen baliabide guztiak izan beharko ditu, berdin dio zer edo zer ikertzeko izan edo inon esku hartzeko izan.

Zuzentarau horretan jasota dagoenez, Batasuneko estatuek hiru urteko epea dute zuzentaraua betetzeko beharrezko xedapenak emateko, dela legez, dela erregelamenduz edo dela administrazio-mailan.

Datuak babestearren Batasuneko erakundeak ez dira, besterik gabe, erkidegoko estatuatarako zuzentarau-sail bat sortzera mugatu. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Batasuneko erakundeetan ere, pertsona fisikoak babesteko hainbat neurri hartu dute. Horretarako onartu zuten Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak, 2000.eko abenduaren 18an, 45/2001 (EE) Erregelamendua, eta kontroleko aginte aske bat ere sortu zuen erregelamendu horrek (Datuak Babesteko Ikuskatzaile Europarra).

te limitación del uso de la informática a tal fin, no es exclusiva del legislador estatal. También las instituciones de la Unión Europea han mostrado su sensibilidad en este sentido.

El Tratado de Amsterdam de 17 de junio de 1997 ha incorporado al tratado constitutivo de la Comunidad Europea su actual artículo 286, que requiere que se apliquen a las instituciones y organismos comunitarios los actos comunitarios relativos a la protección de las personas respecto al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Ya anteriormente, el Parlamento Europeo y el Consejo habían adoptado la Directiva 95/46/CE, de 24 de octubre de 1995, relativa a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, donde se recoge el principio de que los sistemas de tratamiento de datos están al servicio del hombre y que deben respetar las libertades y derechos fundamentales de las personas físicas, en particular la intimidad, y contribuir al progreso económico y social, al desarrollo de los intercambios y al bienestar de los individuos.

Según esta directiva, las legislaciones nacionales relativas al tratamiento de datos personales tienen por objeto garantizar el respeto de los citados derechos y libertades, particularmente el derecho al respeto de la vida privada reconocido en el artículo 8 del Convenio Europeo para la Protección de los Derechos Humanos y de las Libertades Fundamentales, así como en los principios generales del Derecho comunitario, y considera que la aproximación de dichas legislaciones debe tener por objeto asegurar un alto nivel de protección.

Para la citada directiva, un elemento esencial de la protección de las personas, en lo que respecta a la protección de los datos personales, es la creación de una autoridad de control que ejerza sus funciones con plena independencia en cada uno de los Estados miembros, la cual debe disponer de los medios necesarios para cumplir su función, ya se trate de poderes de investigación o de intervención.

La directiva da a los estados miembros un plazo de tres años para la adopción de las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas necesarias para dar cumplimiento a lo establecido en la misma.

La actuación de las instituciones comunitarias en materia de protección de datos no se ha limitado a las directivas destinadas a los estados miembros, sino que también han adoptado medidas destinadas a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales por las instituciones y los organismos comunitarios, mediante el Reglamento (CE) N.º 45/2001, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2000, el cual incluso instituye una autoridad de control independiente (el Supervisor Europeo de Protección de Datos).

Itxura denez, datu pertsonalak eta intimitatea ondo babestu beharra bide-argi moduko bat da Batasunaren arauetarako, eta justu datu pertsonalen babesa arautzeko ez diren beste zuzentarau-proposamen batzuk ere hartzen ditu itzalpean behar horrek, hala nola komunikazio elektronikotarako sare eta zerbitzuak arautzeko esparru erkide bati buruz Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak egin zuten zuzentarau-proposamena (Aldizkari Ofiziala, C 365 E, 2000/12/19koa).

Barruko zuzenbidean, berriz –lehenago ere esan dugu–, datu pertsonalak babesteko lege organikoan dago araturik datu pertsonalen babesa (15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 13koa). Lege horretan daude araturik Datuak Babesteko Bulegoaren araubide juridikoaren oinarritzko alderdiak, Konstituzioko 18.4 artikuluan aipaturiko oinarritzko eskubidearekin zerikusia duten beste gai batzuekin batera. Bulego horrek beteko du 95/46/EE Zuzentzarauan aipaturiko kontrol-aginte askearen lana.

Lege organiko horretan agindurik dagoenez, autonomia-erkidegoek edo erkidego horietako tokiko administrazioek datu pertsonaletarako sorturiko edo kudeaturiko fitxategiekin baldin badute zerikusia bulego horretako zereginak, erkidego bakoitzeko organoek beteko dituzte eginkizun horietako gehienak. Halakoetan, organo horiek izango dira kontrolko aginteak, eta lanerako erabateko objektibitatea eta independentzia bermatu behar zaie. Legezko irizpide hori 95/46/EE Zuzentzarauko 28. artikuluekin bat dator; artikulua horretan jartzen duenez, Batasuneko estatuek, zuzentzarau horren itzalpean hartzen dituzten xedapenak betetzen ote diren zaintzarren beren lurraldean, aginte publiko bat edo gehiago izango dute hartara jarria; eta beste gauza bat ere ghitzen du: aginte horiek inongo loturarik gabe beteko dituztela agintzen dizkieten eginkizunak.

Eta nola antolaturik dagoen bada kontua, legeak hiru titulu ditu:

I. tituluan xedapen orokorrak jaso ditugu. Hor daude zehazturik legearen xedea eta aplikazio-eremua, eta hor dago zedarriturik zein fitxategi geratu den legearen araupean, sortu dituen edo kudeatzen dituen herri-administrazio, erakunde edo korporazioaren arabera. Zedarritze hori osatze aldera, legea zein fitxategitan ez den aplikatuko eta, araubide bereziren bat dutela-eta, zeinetan aplikatuko den ere zehazten da. Definizio-zerrenda bat ere badakar, erabilgarria oso, arautu dugun gai honetako terminologia berezia zehaztu eta bateratzeko; beste hainbat konturen inguruko hainbeste alderdi ere badakar araturik, esate baterako fitxategiak sortzea, aldatzea edo ezabatzea, datu pertsonalak biltzeko mugak, interesdunentzako informazioa, datu-fitxategien segurtasuna, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioak nola jarri ere. Titulu beharrezkoa, inondik ere, legeari koherentzia sistematikoa eta osotasuna emateko, gero garatu egin beharko dena.

Podría decirse que la garantía de un elevado nivel de protección de los datos personales y de la intimidad es un principio inspirador de la normativa comunitaria, que tiene su proyección incluso en propuestas de directiva cuya finalidad no es propiamente la regulación de la protección de los datos de carácter personal, como es el caso de la propuesta de directiva del Parlamento Europeo y del Consejo relativa a un marco regulador común de las redes y los servicios de comunicaciones electrónicas (Diario Oficial n.º C 365 E de 19/12/2000).

En el Derecho interno, la protección de datos de carácter personal se halla regulada, como decíamos antes, en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, que, además de otras materias vinculadas con el derecho fundamental al que se refiere el artículo 18.4 de la Constitución, regula los aspectos básicos del régimen jurídico de la Agencia de Protección de Datos, que es la que se configura como la autoridad de control independiente a la que se refiere la Directiva 95/46/CE.

La ley orgánica establece que la mayor parte de las funciones asignadas a la citada agencia, cuando afecten a ficheros de datos de carácter personal creados o gestionados por las comunidades autónomas y por la Administración local de su ámbito territorial, serán ejercidas por los órganos correspondientes de cada comunidad, que tendrán la consideración de autoridades de control, a los que garantizarán plena independencia y objetividad en el ejercicio de su cometido. Criterio legal que es acorde con el artículo 28 de la Directiva 95/46/CE, según el cual los estados miembros dispondrán de una o más autoridades públicas que se encargarán de vigilar la aplicación, en su territorio, de las disposiciones adoptadas por ellos de acuerdo con la citada directiva, y añade que dichas autoridades ejercerán las funciones que les son atribuidas con total independencia.

Desde el punto de vista de su ordenación sistemática, la ley se halla dividida en tres títulos.

En el título I, de disposiciones generales, se concretan el objeto y el ámbito de aplicación de la ley, delimitando los ficheros que quedan bajo su regulación atendiendo a la Administración pública, institución o corporación que los crea o gestiona. La citada delimitación se completa con la enumeración de los ficheros a los que no se aplicará la ley y de aquellos en los que ésta será de aplicación limitada, por tener regímenes específicos. Contiene también una lista de definiciones muy útil para precisar y unificar la terminología específica de la materia objeto de regulación; se regulan aspectos relacionados con la creación, modificación y supresión de ficheros, limitaciones a la recogida de datos de carácter personal, información a los interesados y seguridad de los ficheros de datos, así como el procedimiento de reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Se trata de un título necesario para dar coherencia sistemática e integridad a la ley, que requerirá de un desarrollo posterior.

II. tituluan, berriz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu, eta hango araubide juridikoaren funtsezko alderdiak arautu ditugu. Bertako langileen erregimena dela, baliabide ekonomikoak direla, aurrekontu-sistema dela, gobernu-organoak direla, eginkizunak direla edo aginpideak direla, horri denari buruzko hainbat agindu dakar. Datuak Babesteko Erregistroaren sorrera dakarrela ere aipatu behar, bulegoak bai baitu haren beharra.

Zehatzeko araubiderako utzi dugu III. titulua. Erantzuleak nor diren, arau-hausteen tipifikazioa eta dagozkien zigorrak datoz jasota. 45/2001 (EE) Erregelamenduan jartzen duenez –lehen ere aipatu dugu–, datu pertsonalak babesteko sistemak ezinbestekoa du eskubide-betebeharrak zehaztea, baina baita arau-haustelentzako modu-moduko zigorrak ere. Gure honetan, berriz, fitxategien titularrak nor diren ikusita, titular bereziak baitira, administrazio, erakunde eta korporazioetako langileen arau-haustek hartu ditugu, batez ere, kontuan, halakoen fitxategietan aplikatu behar denez legea.

Lege honek hiru xedapen gehigarri ditu. Fitxategien berri Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eman beharraz da bat; Autonomia Administrazioak eta foru-administrazioek, beren aginpideak betetze aldera, udal-errola nola erabili behar duten dakar bigarrenak; eta Arartekoaren eta Datuak Babesteko Estatuko Bulegoaren aginpideak babestu beharraz da hirugarrena.

Amaitzeko, azken xedapenean, legea garatzeko eta aplikatzeko baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. *artikulua*.– Xedea

Hauxe da lege honen xedea:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoak, lurralde historikoetako foru-erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek datu pertsonaletarako sorturiko edo kudeaturiko fitxategiak arautzea.

2.– Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzea eta arautzea.

#### 2. *artikulua*.– Aplikazio-eremua

1.– Datu pertsonaletarako fitxategietan aplikatu daiteke lege hau. Zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu edo kudeatuak behar dute izan fitxategi horiek; honako hauek sortuak edo kudeatuak:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, lurralde historikoetako foru-organoek, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioek eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoek.

En el título II se crea la Agencia Vasca de Protección de Datos y se regulan los aspectos fundamentales de su régimen jurídico. Contiene preceptos relativos al régimen del personal a su servicio, recursos económicos, régimen presupuestario, órganos de gobierno, funciones y potestades. Es de resaltar la creación del Registro de Protección de Datos como órgano necesario de la agencia.

El título III está dedicado al régimen sancionador. En él se delimitan los sujetos responsables, se tipifican las infracciones y se establecen las sanciones correspondientes. Como dice el Reglamento (CE) N.º 45/2001, antes citado, un sistema de protección de datos personales requiere establecer derechos y obligaciones, pero también sanciones apropiadas para los infractores. En nuestro caso, dadas las características especiales de los titulares de los ficheros, se presta especial atención al supuesto de infracciones cometidas por el personal al servicio de las administraciones, instituciones y corporaciones a cuyos ficheros se aplica la ley.

La ley contiene tres disposiciones adicionales, relativas a la necesaria comunicación de los ficheros existentes a la Agencia Vasca de Protección de Datos, a la utilización de los datos del padrón municipal por las administraciones autonómica y forales para el ejercicio de sus competencias, y al necesario respeto de las competencias del Ararteko y de la Agencia de Protección de Datos del Estado.

Concluye con una disposición final, en la que se autoriza al Gobierno Vasco para su desarrollo y aplicación.

## TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### *Artículo 1*.– Objeto

La presente ley tiene por objeto:

1.– La regulación de los ficheros de datos de carácter personal creados o gestionados por la Comunidad Autónoma del País Vasco, los órganos forales de los territorios históricos y las administraciones locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La creación y regulación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

#### *Artículo 2*.– Ámbito de aplicación

1.– La presente ley será aplicable a los ficheros de datos de carácter personal creados o gestionados, para el ejercicio de potestades de derecho público, por:

a) La Administración General de la Comunidad Autónoma, los órganos forales de los territorios históricos y las administraciones locales del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como los entes públicos de cualquier tipo, dependientes o vinculados a las respectivas administraciones públicas, en tanto que los mismos hayan sido creados para el ejercicio de potestades de derecho público.

- b) Eusko Legebiltzarrak.
- c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.
- d) Arartekoak.
- e) Lan Harremanen Kontseiluak.
- f) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak.
- g) Kooperatiben Goren Kontseiluak.
- h) Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.
- i) Ebazpen Batzordeak.
- j) Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioek.

k) Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakundek –berdin dio nortasun juridikoa duen edo ez–, lege horrek bestelakorik xedatzen ez badu.

2.– Aurreko zenbaki horretan jarrita dagoena jarrita dagoela ere, honako fitxategi hauetan ez da aplikatuko lege hau:

a) Sekretutzat jotako gaietarako babes-arauen pean dauden fitxategietan.

b) Terrorismoa eta delinkuentzia-modu antolatatuak ikertzeko dauden fitxategietan.

c) Hauteskunde-araubideko legeek arauturikoetan.

d) Euskadiko poliziek bideokamera bidez lorturiko irudi eta hotsetatik sorturiko fitxategietan, gai horri buruzko legeen arabera.

3.– Estatistiketarako besterik ez badira eta funtzio estatistiko publikoari buruzko legeen babesean badaude, datu pertsonalak tratatzeko, hartarako berariazko xedapenak eta –halako ezer xedatzen badu– lege honetan bereziki xedaturikoa bete beharko dira.

4.– Osasuneko erakunde eta zentro publikoek eta hor lan egiten duten profesionalak osasun-arloko legeetan xedaturik dagoenaren arabera tratatu ahal izango dituzte etortzen zaizkien gaixoen edo bertan tratatu behar dituzten gaixoen osasunari buruzko datu pertsonalak. Hala ere, lege horiekin bateraezina ez den guztirako, lege honetan xedaturikoa ere bete beharko da.

5.– Euskadiko poliziek datu pertsonaletarako sortu edo kudeatzen dituzten fitxategietan ere –artikulu honetako 2. zenbakian agertzen direnen artean ez badaude– lege honetan xedaturikoa aplikatu beharko da, araubide juridikoan dituzten berezitasunak zainduta. Hemen daude berezitasun horiek: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean.

- b) El Parlamento Vasco.
- c) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
- d) El Ararteko.
- e) El Consejo de Relaciones Laborales.
- f) El Consejo Económico y Social.
- g) El Consejo Superior de Cooperativas.
- h) La Agencia Vasca de Protección de Datos.
- i) La Comisión Arbitral.

j) Las corporaciones de derecho público, representativas de intereses económicos y profesionales, de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

k) Cualesquiera otros organismos o instituciones, con o sin personalidad jurídica, creados por ley del Parlamento Vasco, salvo que ésta disponga lo contrario.

2.– No obstante lo dispuesto en el número anterior, esta ley no será de aplicación a los ficheros:

a) Sometidos a la normativa sobre protección de materias clasificadas.

b) Establecidos para la investigación del terrorismo y de formas graves de delincuencia organizada.

c) Regulados por la legislación de régimen electoral.

d) Procedentes de imágenes y sonidos obtenidos mediante la utilización de videocámaras por los cuerpos de Policía del País Vasco, de conformidad con la legislación sobre la materia.

3.– Se registrarán por sus disposiciones específicas y, en su caso, por lo especialmente previsto en esta ley los tratamientos de datos personales que sirvan a fines exclusivamente estadísticos y estén amparados por la legislación sobre la función estadística pública.

4.– Las instituciones y centros sanitarios de carácter público y los profesionales a su servicio podrán proceder al tratamiento de los datos de carácter personal relativos a la salud de las personas que a ellos acudan o hayan de ser tratadas en los mismos, de acuerdo con lo dispuesto en la legislación sectorial sobre sanidad, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en esta ley en todo lo que no sea incompatible con aquella legislación.

5.– La aplicación de lo dispuesto en esta ley a los ficheros de datos de carácter personal, distintos de los citados en el número 2 de este artículo, creados o gestionados por los cuerpos de Policía del País Vasco se efectuará sin perjuicio de las especificidades de su régimen jurídico previstas en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y en la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

**3. artikulua.**– Definizioak

Lege honen ondorioetarako, hona hemen definizio batzuk:

a) Datu pertsonalak: identifikatutako edo identifi-ka daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio. Zuzenean edo zeharka nor den jakiteko moduko edonor da identifikagarria, eta, bereziki, nortasunzenbaki baten bidez edo ezaugarri baten edo batzuen bidez identifi-ka daitezkeen edonor, berdin dio ezaugarri horiek fisikoak, fisiologikoak, psikikoak, ekonomikoak, kulturakoak edo sozialak izan.

b) Fitxategia: datu pertsonalen multzo antolatu oro, datu-multzoa sortu, jaso, antolatu eta eskuratzeko modua edozein dela ere.

c) Datuen tratamendua: eragiketa eta prozedura teknikoak dira –batzuetan automatizatuak beste batzuetan ez–, eta datuak bildu, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta indarrik gabe uzteko aukera ematen dute. Komunikazio, kontsulta, elkarkonexio eta transferentzien eraginez datuak uztea ere datuak tratatzea da.

d) Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea: pertsona, erakunde, entitate, korporazio edo administrazio-organoren bat izango da, hari atxikita egongo da fitxategia, eta hark erabakiko du tratamendua zertarako den, zein eduki duen eta nola egin behar den. Fitxategia sortzen duen xedapenean zehaztuko da nor den erantzulea. Seguritasuneko agirian zehazturikoak izango dira erantzulearen eginkizunak.

e) Tartekoa edo interesduna: tratatu beharreko datuen titularra den pertsona fisikoa. Artikulu honetako c) letran dago zehazturik tratatze hori.

f) Tratamenduaren arduraduna: pertsona fisikoa edo juridikoa, aginte publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke, eta hark tratatzen ditu, arduradunaren aginduz, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, datu pertsonalak.

g) Interesdunaren adostasuna: interesdunak baiezkota ematea bere datu pertsonalak tratatzeari; inork inola ez gabe, zalantzarako biderik eman gabe, berariaz eta zer egiten duen jakinda egin beharko du.

h) Datuak uztea edo jakinaraztea: interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.

**4. artikulua.**– Fitxategiak sortzea, aldatzea eta ezabatzea

1.– Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularraren agindu bidez egin beharko da. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da. Agindu hori egiteko prozedura xedapen orokorrak egiteko erabakita dagoen berbera izan da.

**Artículo 3.**– Definiciones

A los efectos de esta ley se entenderá por:

a) Datos de carácter personal: cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables. Se considerará identificable toda persona cuya identidad pueda determinarse directa o indirectamente, en particular mediante un número de identificación o uno o varios elementos específicos característicos de su identidad física, fisiológica, psíquica, económica, cultural o social.

b) Fichero: todo conjunto organizado de datos de carácter personal, cualquiera que fuera la forma o modalidad de su creación, almacenamiento, organización y acceso.

c) Tratamiento de datos: operaciones y procedimientos técnicos, de carácter automatizado o no, que permitan la recogida, grabación, conservación, elaboración, modificación, bloqueo y cancelación, así como las cesiones de datos que resulten de comunicaciones, consultas, interconexiones y transferencias.

d) Responsable del fichero o tratamiento: persona, institución, entidad, corporación u órgano administrativo al que está adscrito el fichero y que decide sobre la finalidad, contenido y uso del tratamiento. La disposición por la que se cree el fichero determinará el responsable del mismo. Sus funciones serán las establecidas en el documento de seguridad.

e) Afectado o interesado: persona física titular de los datos que sean objeto del tratamiento a que se refiere la letra c) de este artículo.

f) Encargado del tratamiento: persona física o jurídica, autoridad pública, servicio o cualquier otro organismo que, solo o conjuntamente con otros, trate datos personales por cuenta del responsable del tratamiento.

g) Consentimiento del interesado: toda manifestación de voluntad, libre, inequívoca, específica e informada, mediante la que el interesado consienta el tratamiento de datos personales que la conciernen.

h) Cesión o comunicación de datos: toda revelación de datos realizada a persona distinta del interesado.

**Artículo 4.**– Creación, modificación y supresión de ficheros

1.– La creación, modificación y supresión de ficheros de la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará por orden del titular del departamento al que esté adscrito el fichero, la cual deberá contener todas las menciones exigidas por la legislación en vigor y será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. El procedimiento de elaboración de la citada orden será el previsto para la elaboración de disposiciones de carácter general.

2.— Datu pertsonalen fitxategiak beste administrazio, erakunde edo korporazio batzuetakoak badira, berri-izateko, aldatu edo ezabatze erabakiak edo xedapenak derrigorrezko aipamen guztiak jaso behar dituzte eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo lurralde historikoko aldizkarian argitaratu da, fitxategia duenaren eginkizun edo aginpideak zein lurralde-eremutara iristen diren kontuan hartuta.

#### 5. artikulua.— Datu pertsonalak biltzea

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden herri-administrazioek eta gainerako erakunde, korporazio eta entitateek beren aginpideak gauzatzeko egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak dituztenean baino ezin dituzakete bildu, tratatzeko asmoz, datu pertsonalak. Legez bestelakorik agintzen ez bada behinik behin, datu horiek biltzeko ez da tartean direnen adostasuna eskatu behar, baina biltzerakoan datu horiek zituzten helburu jakin, zehatz eta zilegiatarako bakarrik erabili behar dituzte, nahiz eta gero helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabil daitezkeen, aplikatu beharreko legeen arabera.

#### 6. artikulua.— Interesdunei eman beharreko informazioa

Interesdunei datu pertsonalik eskatzera, jakin beharrekoak azaldu behar zaizkie aurretiaz, halako datuak babesteko legeen arabera. Baina datu horiek ez badituzte interesdunarengandik berarengandik jaso, eta ezinezkoa bada hari informazioa ematea edo informazioa emate horrek neurrigabeko ahaleginak egin beharra eskatzen badu interesdunak asko direlako, datuak zaharrak direlako edo ordaina eman beharra legokeelako, hala-koetan Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, aipaturiko legeekin bat eginik, fitxategiaren erantzulea interesdunei informazioa eman behar horretatik libre utz daiteke.

#### 7. artikulua.— Segurtasuneko agiriaren gutxieneko edukia onartzea

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden herri-administrazioetako, erakundeetako eta korporazioetako gobernu-organismoek, beren buruak antolatze ahalmenez baliatuz, segurtasuneko agiriaren gutxieneko edukia onar dezakete, datuen segurtasunari buruzko aginduak betetzearren eta dena delako administrazio, erakunde edo korporazio hori titular duten fitxategi guztietan edo fitxategi horietako batzuetan aplikatzeko asmoz. Edonola ere, segurtasuneko agiri hori fitxategiko arduradunek egin eta ezarri behar dute, fitxategi horietako datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko.

#### 8. artikulua.— Interesdunen eskubideak erabiltzeko prozedura

1.— Datuen aurka egiteko, datuetara iristeko, datu horiek zuzentzeko, indarririk gabe uzteko eta legeak onarturiko beste edozertarako eskubidea izango dute interesdunek. Legean zehazturikoa izango da eskubide horien edukia.

2.— En el caso de ficheros de datos de carácter personal de otras administraciones, instituciones o corporaciones, el acuerdo o disposición por la que se cree, modifique o suprima deberá contener todas las menciones exigidas y será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco o del territorio histórico, según sea el ámbito territorial al que se extienden sus funciones o competencias.

#### Artículo 5.— Recogida de datos de carácter personal

Las administraciones públicas y demás instituciones, corporaciones y entidades a que se refiere el artículo 2.1 de esta ley sólo podrán recoger datos de carácter personal para su tratamiento cuando sean adecuados, pertinentes y no excesivos para el ejercicio de las respectivas competencias que tienen atribuidas. Salvo precepto legal en sentido contrario, para la obtención de dichos datos no será preciso recabar el consentimiento de los afectados, pero sólo podrán utilizarse para las finalidades determinadas, explícitas y legítimas para las que se hubieran obtenido, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo con la legislación aplicable.

#### Artículo 6.— Información a los interesados

Los interesados a los que se soliciten datos de carácter personal serán previamente informados, de conformidad con la legislación sobre protección de dichos datos. No obstante, cuando los datos no hayan sido recabados del propio interesado y la información a éste resulte imposible o exija esfuerzos desproporcionados, en consideración al número de interesados, a la antigüedad de los datos y a las posibles medidas compensatorias, el director de la Agencia Vasca de Protección de Datos, de acuerdo con la susodicha legislación, podrá dispensar al responsable del fichero de la obligación de informar a los interesados.

#### Artículo 7.— Aprobación del contenido mínimo del documento de seguridad

En el ejercicio de sus potestades de autoorganización, los órganos de gobierno de las administraciones públicas, instituciones y corporaciones a que se refiere el artículo 2.1 de esta ley podrán aprobar, en aplicación de los preceptos relativos a la seguridad de los datos y para aplicar a todos o parte de los ficheros de los que son titulares sus respectivas administraciones, instituciones o corporaciones, el contenido mínimo del documento de seguridad que, en todo caso, deberán elaborar e implantar los responsables de fichero para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal contenidos en los citados ficheros.

#### Artículo 8.— Procedimiento para el ejercicio de los derechos de los interesados

1.— Los interesados podrán ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación, cancelación y cualesquiera otros que les reconozca la ley. El contenido material de los mismos será el determinado en la ley.

2.- Aurreko zenbakian zehazturiko eskubideak erabiltzeko prozedura administrazio, erakunde edo korporazio bakoitzak arautuko du, erregelamendu bidez, lege hau bete behar duten beren fitxategietarako. Horregatik ez dute inolako ordainik eskatuko.

**9. artikulua.**– Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioak aurkeztea

1.- Lege honetan xedaturikoaren aurka ezer egiten badu inork, interesdunek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklama dezakete. Erregelamendu bidez zehaztuko da nola.

2.- Interesdunen bati ez badiote uzten datuen aurka egiteko, datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, indarrrik gabe uzteko edo legetan –datu pertsonalak babesteko legetan– aitorturiko beste edozertarako eskubidea erabiltzen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazteko aukera izango du, eta hark, orduan, ezezko hori bidezkoa den edo ez ikusi beharko du.

3.- Gehienez ere sei hilabeteko epea dago eskubideak ziurtatzeko berriazko ebazpena emateko eta jakinarazteko, eta administrazio-isiltasunak, halakoetan, eskatutako ziurtatze horri ezezkoa eman diotela esan nahiko du.

4.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpenen aurka. Nahi izanez gero, aurretiaz, berraztertze errekurtsoa jar daiteke.

## II. TITULUA

### DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

**10. artikulua.**– Sorrera eta araubide juridikoa

1.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzen da. Zuzenbide publikoko entea izango da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak. Lege honetan eta bere estatutuan xedatutakoaren arabera jardungo du; estatutu hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartu beharko da, Lehendakariordetzak proposaturik.

2.- Administrazioaren ahalak gauzatu behar dituzten, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak azaroaren 26ko 30/1992 Legea bete beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. Gainerako jardunean, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, lege hau eta lege horiek garatzeko xedapenak bete beharko ditu.

3.- Ondararik eskuratzeko edo ezer kontratatze, indarrean dagoen zuzenbide publikoa bete beharko du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak. Bulegoaren ondasun eta eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarekoak izango dira.

2.- Cada administración, institución o corporación regulará reglamentariamente el procedimiento para el ejercicio de los derechos señalados en el número anterior, en relación con los ficheros de su titularidad a los que es de aplicación esta ley. No se exigirá contraprestación alguna por ello.

**Artículo 9.**– Reclamaciones ante la Agencia Vasca de Protección de Datos

1.- Las actuaciones contrarias a lo dispuesto en esta ley pueden ser objeto de reclamación por los interesados ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, en la forma que reglamentariamente se determine.

2.- El interesado al que se deniegue, total o parcialmente, el ejercicio del derecho de oposición, acceso, rectificación, cancelación o cualquier otro que le reconozca la legislación sobre protección de datos de carácter personal, podrá ponerlo en conocimiento de la Agencia Vasca de Protección de Datos, que deberá asegurarse de la procedencia o improcedencia de la denegación.

3.- El plazo máximo en que se debe dictar y notificar la resolución expresa de tutela de derechos es de seis meses, entendiéndose el silencio administrativo como desestimatorio de la tutela pedida.

4.- Contra las resoluciones de la Agencia Vasca de Protección de Datos procederá recurso contencioso-administrativo. Podrá interponerse con carácter previo, potestativamente, recurso de reposición.

## TÍTULO II

### LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS

**Artículo 10.**– Creación y régimen jurídico

1.- Se crea la Agencia Vasca de Protección de Datos como ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones. Se regirá por lo dispuesto en esta ley y en su estatuto propio, que será aprobado por decreto del Gobierno Vasco a propuesta de la Vicepresidencia.

2.- La Agencia Vasca de Protección de Datos sujetará su actividad a la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, cuando ejerza potestades administrativas. En el resto de su actividad se someterá a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, en esta ley y en las disposiciones de desarrollo de las mismas.

3.- La Agencia Vasca de Protección de Datos estará sujeta al derecho público vigente en materia de adquisiciones patrimoniales y contratación. Sus bienes y derechos pertenecerán al patrimonio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.



4.– Auzubidean jardun beharra badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioioko zerbitzu juridikoen ardura izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ordezkatzeara eta defendatzeara, arauetan xedaturik daukatenaren arabera.

#### 11. artikulua.– Langileak

1.– Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik datuzen herri-administrazioetako eta erakundeetako funtzionarioek eta propio kontrataturiko langileek beteko dituzte Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostuak, lanpostu bakoitzak dituen eginkizunen arabera. Beren lanean ezagutzen dituzten datu pertsonalak isilpean gorde beharko dituzte langile horiek, derrigor.

2.– Datuak Babesteko Euskal Bulegoko langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzio publikoko arauen pean egongo dira. Arau horiekin bat, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio lanpostuak eskuratzeko sistema erabakitzea, baldintzak eta hautaprobeen ezaugarriak zehaztea, bai eta lanpostuak betetzeko eta laneko sustapeneko prozedurarako deialdiak egitea eta prozedura horiek kudeatzea eta ebaztea ere.

3.– Ahal publikoak erabili beharra daukaten lanpostuak funtzionarioentzat gordeta egongo dira.

#### 12. artikulua.– Baliabideak

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako ondasun eta baliabide hauek izango ditu bere eginkizuna betetzeko:

a) Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrean urtero izendatuko zaion diru-kopurua.

b) Ematen dizkieten diru-laguntzak eta egiten dizkieten ekarpenak.

c) Bere jardunak ematen dizkion diru-sarrerak, ohi-koak nahiz ohiz kanpokoak.

d) Ondarekoak dituen ondasunak eta baloreak, eta haiek ematen dituzten produktu eta errentak.

e) Legez ematen dioten beste edozein ondasun edo baliabide.

#### 13. artikulua.– Aurrekontua

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrean sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera. Lege horiek bete beharko ditu bere aurrekontua aldatzeko, gauatzeko eta kitatzeko araubideari dagokionez. Horretarako, kontuan hartu beharko du erakundearen izaera, kontabilitate publikoaren araubidea

4.– La representación y defensa en juicio de la Agencia Vasca de Protección de Datos estará a cargo de los servicios jurídicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a lo dispuesto en sus normas reguladoras.

#### Artículo 11.– Personal

1.– Los puestos de trabajo de la Agencia Vasca de Protección de Datos serán desempeñados por funcionarios de las administraciones públicas e instituciones a que se refiere el artículo 2.1 de esta ley y por personal contratado al efecto, según la naturaleza de las funciones asignadas a cada puesto de trabajo. Este personal estará obligado a guardar secreto respecto a los datos de carácter personal que conozca en el desarrollo de su función.

2.– El personal al servicio de la Agencia Vasca de Protección de Datos estará sometido a la normativa reguladora de la función pública en la Administración General de la Comunidad Autónoma. De conformidad con la misma, corresponde a la Agencia Vasca de Protección de Datos determinar el régimen de acceso a sus puestos de trabajo, los requisitos y las características de las pruebas de selección, así como la convocatoria, gestión y resolución de los procedimientos de provisión de puestos de trabajo y promoción profesional.

3.– Los puestos de trabajo que comporten el ejercicio de potestades públicas estarán reservados a personal funcionario.

#### Artículo 12.– Recursos

La Agencia Vasca de Protección de Datos contará, para el cumplimiento de sus fines, con los siguientes bienes y medios económicos:

a) Las asignaciones que se establezcan anualmente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

b) Las subvenciones y aportaciones que se concedan a su favor.

c) Los ingresos, ordinarios y extraordinarios, derivados del ejercicio de sus actividades.

d) Los bienes y valores que constituyan su patrimonio, así como los productos y rentas del mismo.

e) Cualesquiera otros que legalmente puedan serle atribuidos.

#### Artículo 13.– Presupuesto

La Agencia Vasca de Protección de Datos elaborará y aprobará con carácter anual el correspondiente anteproyecto de presupuesto y lo remitirá al Gobierno Vasco para que sea integrado, con la debida independencia, en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, de acuerdo con la legislación reguladora del régimen presupuestario de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estará sometida a esta legislación en lo relativo al régimen de modificación, ejecución y liquidación de su presupuesto, atendiendo a estos efectos a la

eta Autonomia Erkidegoko Administraziooko Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrola; horrek denak ez du esan nahi ekonomia eta finantzetako eta kontularitzako jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik.

#### 14. artikulua.– Gobernu-organoak

Zuzendaria, Kontseilu Aholku-emailea eta bere estatutuan zehazturik dituenak dira Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu-organoak.

#### 15. artikulua.– Zuzendaria

1.– Zuzendariak zuzentzen eta ordezkatzeko du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez izendatuko dute, lau urterako.

2.– Inolako loturarik gabe eta objektibotasunez beteko ditu bere zereginak, eta ez du inolako jarraibiderik bete beharrik izango. Baina Kontseilu Aholkuemai-leak, bere zereginak betetzean, ezer proposatzen badiu, zuzendariak entzun beharko dio.

3.– Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak kargua epea amaitu baino lehenago utzekotan, honako arrazoi hauetakoren batengatik utziko du:

a) Berak eskaturik.

b) Gobernu Kontseiluak kargutik kentzea erabakita, arrazoi hauetakoren bat dela eta: betebeharrak bete ez dituelako, bere lana egin ezina etorri zaiolako, bateraezintasunen bat dela-eta edo dolozko delituren batengatik epaia jaso duelako. Halakoetan, espedientea egin beharko da aurretiaz, eta Kontseilu Aholku-emai-leari entzun beharko zaio, derrigor, espediente horretan.

4.– Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendaria goi-kargua izango da, aurretik eginkizun publikoren bat betetzen bazuen zerbitzu berezietan geratuko da, eta Autonomia Erkidegoko administraziooko goi-karguen bateraezintasun-sistemaren pean egongo da.

#### 16. artikulua.– Kontseilu Aholku-emailea

1.– Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Kontseilu Aholku-emaile bat izango du, aholkuak emateko. Honako kide hauek izango ditu:

a) Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat, Legebiltzar-  
rak berak izendaturik.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko ordezkari bat, Gobernu Kontseiluak izendaturik.

c) Lurralde historikoen ordezkari bat, lurralde horiek batera izendaturik.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko toki-erakundeetako ordezkari bat, lurralde horretan erakunde horien ordezkari-  
tza handiena duen elkarteak izendaturik.

naturaleza de la entidad; al régimen de contabilidad pública y al control económico financiero y de gestión del Departamento de Hacienda y Administración Pública de la Administración de la Comunidad Autónoma, sin perjuicio de la fiscalización de sus actividades económico-financieras y contables por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

